

# ALKATEAREN AGURRA

Urteroko argitalpena zena aurten azken bi urtekoak jasotzera datorkigu, hasieratik urtean behin kalean izateko asmoari heltzen diogula argi utzi nahi dugun arren, baina batzutan gauzak honela suertatzen dira.

Edonola ere, urtebeteko hutsuneak esku artean hartu, masiatu eta bertan aurki daitezkeen artikulu zein baino zein interesgarriagoak etxeratzeko gogoa bizirik mantendu edota areagotuko zuela pentsatu nahi dut. Hala ez izanda ere, *HERNANI 2007/08 Urtekarian* behin esku artean interesa pizteko moduko kontuak aurkituko dituzue bertan. Orrialdeetan barrena hasi orduko ohartuko zarete orain arteko bideari uko egin ez eta garai bateko zein gaur gaurko kontuetan murgilduko zaituztela argitalpen honen irakurketak, natura, musika, arte, kirolak, kultura eta beste hainbat esparru ukituz.

Denak ere zuen intereseko izango direla espero dut, asmo horrekin aritu dira lanean urtekarian artikuluak idatzi dituztenak. Guztiei eskerrrik beroenak, eta zuei atsegina izan dakizuela.

Niretzat aukera ezin hobea da Hernani berezia eta bizioki ezin hobea egiten duten esparru ezberdinetan sakondu eta ikasten jarraitzeko, zuentzat ere hori bezain asegarria izatea espero dut.

## SALUDO DE LA ALCALDESA

Lo que venía siendo una publicación anual recopila en la presente edición la de los dos últimos años, ya que, aunque queremos dejar claro que mantenemos el propósito inicial de continuar con su periodicidad anual, en ocasiones, las cosas vienen así.

De cualquier manera, quiero pensar que su no publicación en la pasada edición habrá contribuido a mantener vivo e incluso incrementado ese deseo de tener entre manos esta publicación y de leer los artículos, cada cual más interesante, que en ella se presentan. Así, encontraréis en el *Anuario HERNANI 2007/08* diferentes relatos y testimonios que a buen seguro os interesarán. Su lectura os sumergirá desde las primeras páginas en historias de ayer y de hoy, tal y como venía haciendo hasta ahora, tratando temas como naturaleza, música, arte, deporte, cultura y otros tantos.

Confío en que todos ellos sean de vuestro interés; este ha sido el propósito de aquellos y aquellas que han preparado los artículos. Mi más sincero agradecimiento a todos ellos y ellas, y espero que también sean de vuestro agrado.

Es para mi una ocasión inmejorable para profundizar y seguir conociendo diferentes aspectos que hacen de Hernani un lugar especial e inmejorable para vivir. Espero que para vosotros y vosotras también lo sea.



Marian Beitialarrangoitia